

Etxean Kontu Kantari 2016/11 (I)

Ttikirriki ttona

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Ttikirriki ttikirriki ttiirriki ttona,
Rikittiki, rikittiki, rikittiki ttona...

Haurra sehaskatik atera eta jolasteko; kili-kili eginez, dantzan jartzen...

Senda-senda, miriku

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Senda-senda, miriku
Oilo-kaka ziriku.
Amen, zu hor eta ni hemen

Mina igurtzen da esaldia esatearekin batera, mina joaten den arte.

Kuku miku santaliku

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Kuku miku, santaliku
txoriak umeak egin ditu.
Non?
Haritzaren adarrean.
Kaka gure Naroaren bizkarrean.

Atzamarrak saltoka joango dira haur txikiaren gorputz gainean: orain toki batean, gero beste batean; orain salto txikiak eginez ala igurtziak...

Honek txotxak bildu

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Honek txotxak bildu,
Honek sua egin
Honek arrautza frijitu
Honek pixka-pixka bat probatu
Eta handi pikaro honek den- dena xurupatu...

Jolasean atzamar bakoitza berezi. Atzamar bakoitzari bere izena erantsi... Esku-ahurrean kili- kiliak eginez bukatu kontutxoa

Txitxi tela

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Txitxi tela
Papa tela,
Bihar dela Bazko,
Etzi xinger moko,
Arrautza eta koxko.
Nik axala,
Zuk mamia,
Krik! Ahorako.

Haurrari esan jaten duen bitartean, janariarekin jolasean...

Txalo-txalo txalotxin

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Txalo-txalo txalotxin,
zatoz etxera Matxin,
txaloa dago adarrean,
bere aulkitxo nabarrean;
txano txine bailesta,
etxera nahi ezta!

Txaloka arituko dira jolasak irauten duen artean.

Joxe-Moxe gitarra

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Joxe-Moxe gitarra,
Ahuntzak ainako bizarra,
Zopa gutxi janda,
Eneko kaxkarra

Burla koplaxo hau hurrari barre egiteko da: gutxi jaten duenean...

Txilin-txilin Manex

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Txilin-txilin Manex,
Aita-jauna non da?
Asto txiki batekin,
errotara joan da.

Balantzatzeko jolasa da honako hau.
Haurra galtzarbeetatik heldu eta kulunkan jartzeko, azkeneko ahapaldira arte.
Hor airera jaurtitzen da.

Kukurruku!

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

- KUKURRUKU!
- Zer diozu?
- Buruko min.
- Zeinek egin?
- Axeriak.
- Axeria non da?
- Txotxak biltzen.
- Txotxak zertarako?
- Sua pizteko.
- Sua zertarako?
- Amona berotzeko.
- Amona zertarako?
- Oiloari jana emateko.
- Oiloa zertarako?
- Arrautza egiteko.
- Arrautza zertarako?
- Gu guztiok jateko.

Txoritxo Pintto-Pintto

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Txoritxo pintto-pinttok,
arbola adarrean,
ederto kantaten dau,
buztana gainean.

Xoxua, birigarrua,
Kamixero, kamixero,
Makarroi goxuak!

Txalopin txalo

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Txalopin txalo
Txalo eta txalo
Katutxoa mizpira
ganean dago.
Badago bego,
Bego badago,
Zapatatxo berriei
Begira dago.

Txantxibiri

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri Elkarte.

Txantxibiri, txantxibiri
ibiltzen ziren Elorrioko kalean,
hamalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoren ganean.
Astoak ziren txiki txikiak,
atsoak ziren handiak.
Nola demontre konpontzen ziren
zazpi astoren ganean.